

Suzuko Tamura (1934-2015) gogoan

HAGIO, Sho

Tokyo University of Foreign Studies unibertsitateko irakaslea

2015eko abuztuaren 3an joan zitzaigun Suzuko Ainhoa Tamura. 81 urte zituen. Aspalditik ezagutzen genuenoi bere heriotzaren berria goizegi heldu zela iruditu zitzaigun, nabaria baitzen haren barnetik agertzen zen bizitasunaren distira, aurpegi irribarretsuarekin batera. Tamura andrea ez zen inoiz ere bolizko dorrean ezkututzen, eta beti egoten zen prest norahirekin solas egiteko, inor baztertu gabe.

Agian toki berezia da berea hizkuntzalari deskribatzaile japoniar bezala akademikoen artean. Izan ere, Suzuko Tamura andrearen garaian, Japoniako akademiko gehienek hautatzen zituzten Mendebaldeko hizkuntza handietako batzuk, haien espezialitateak garatzeko, hizkuntza horietan oinarritzen den «zibilizazio unibertsala» bereganatzeko asmoz, edo lanpostu hobe bat lortzeko nahiarekin. Baina Tamurari hizkuntza eranskariak interesatu zitzaizkion, besteak beste, japoniera, ainuera, inuitera, euskara etab. Euskararekiko interesa bere bizitzaren azken erdian etorri zitzaion arren, euskal munduarekiko bihotzezko atxikimendua mantendu zuen bitzita osoan.

Tamura 1934ko urtarrilaren 2an jaio zen Japoniako Nagoya hirian. 1956an Tokioko Unibertsitatean hizkuntzalaritzan lizentziatu zenez gero, urte bat japoniera irakasten eman zuen Japoniako iparraldean dagoen Hokkaido uharterko lizeo batean. Eta berriro Tokioko Unibertsitatean sartu zen doktoretza ikasketak amaitu arte 1962an. Hurrengo urtean irakasle postua lortu zuen Waseda Unibertsitateko Hizkuntzen

Irakaskuntzarako Institutuan¹, adiskidetasunez «Goken» deitzen genion horretan.

Hastapenean, ainuera zen Tamuraren ikergai nagusia. Ainuera Hokkaidon hitz egiten zuten, baina Tamurak ikerketa hasi zuenerako, hiztunak desagertzeko arriskuan zeuden. Ainuerak dialekto batzuk dauzka. Tamurari asko interesatu zitzaizkion *Saru* dialektoaren persona-hizkiak. Esan ohi da ikertzailea benetan buru-belarri ari zela, baina 1967an «Goken» utzi zuen, ikerketaren eta etxeko lanaren arteko oreka lortzea zaila iruditu baitzitzaion.

Aldaketa 1973 inguruan etorri zitzaion, lehenengo «Kindaichi Saria»² jasotzeko ohorea izan zuenean Tamurak, aurreko urteetan egin zuen ainuerari buruzko ikerketa-segidagatik³. Sari hau Japonia eta inguruko hizkuntza edo kulturei buruzko ikerketarik bikainena gauzatu duen ikerlari gazteari ematen diote urtero. Aipagarria da, bestetik, urte hartan Roman Jakobsonen *Essais de linguistique générale* japonierara itzuli eta argitaratu⁴ zuela beste ikertzaile batzuekin elkarlanean.

1974an, Waseda Unibertsitateko «Goken»ek ongi etorri beroa egin zion berriro Tamurari. Ohiz kanpoko kasua zen behin unibertsitatea utzitako irakasle berari unibertsitate berak berriro lanpostu bat eskaintzea. Kontua da, Japoniako unibertsitate pribatu ospetsuenetako bat zela eta garai hartako «Goken»en munduko edozein hizkuntza ikertzeko eta irakasteko askatasun osoa zegoela. «Goken» horretan Tamurak bere ikerketa sakontzeaz gain, bere ikuspegiak zabaltzeko aukera izan zuen. Hitzen ordena ikertzen aurrera segituz, hain zuzen, Kanadako inuit-en hizkuntza ikasten hasi zen.

¹ Izen ofiziala Waseda Daigaku Gogaku Kyōiku Kenkyūjo da.

² Ik. <http://dictionary.sanseido-publ.co.jp/affil/kkprize/history.html>

³ Garai hartako Tamuraren hainbat ikerlanen artean, hurrengo bi artikulua ingelesez irakur ditzakegu. TAMURA, Suzuko (1967): «Studies of the Ainu Language», *Current Trends in Linguistics*, vol. 2, Mouton, 608-632. TAMURA, Suzuko (1970): «Personal Affixes in the Saru Dialect of Ainu», in *Studies in General and Oriental Linguistics*, JAKOBSON, Roman & KAWAMOTO, Shigeo (eds.), 577-611, Tokyo, TEC. (2001ean berriz argitaratu zen ainuerari buruzko ikerlan bilduma barruan. *Ainugo-kō*, *Bunpō* I, 4. libk, 206-240, Tōkyō: Yumani Shobō).

⁴ JAKOBSON, Roman (1973): *Ippan Gengogaku*, Tōkyō, Misuzu Shobō.

Eta 1977an hitzaldi publikoak ematera Tokiora etorri zen Jacques Allières euskalari frantsesa ezagutu zuen; ondorioz, euskararekiko interesa ere piztu zitzaion.

Allièresen eraginez 1979ko udan, Donapaleun eta Bilbon euskal ikastaro bi egin zituen, eta hurrengo urteko otsaila arte Euskal Herria eta Allières zegoen Tolosa (Toulouse) arteko joan-itzuliak egin zituen, ia beti euskal giroan zebilenez. Bitartean, euskal musika tresnak jotzen ere ikasi zuen. Zazpi hilabete hauetan zehar bereganatutako euskarazko jardun harrigarri naturala ikaragarri nabari zitzaien bertoko euskaldunei, batez ere Euskaltzaindiak 1980ko abuztuan antolatutako Euskalarien Nazioarteko Jardunaldietan.

Jean Haritschelharrekin eta Jose Mari Satrustegirekin harreman luzeak izan zituen. Haritschelharrek aholkatuta, euskal sintaxiari buruzko lanak argitaratu zituen 1983an. Lan horiek euskara, japoniera, ainuera, eta inuitarekin konparatuta eginak zituen⁵. Geroxeago, 1985ean Satrustegi Japoniara gonbidatu zuen, euskaldun eta japoniarren ohitura zaharren konparaketa egin zezan⁶. Bitartean, urte berean, katolizismora konbertitu zen euskaldunekin izandako adiskidetasunezko harremanen eraginez.

Pertsona zuzena zen Tamura, zinez. Ikertzaile bezala, anbiguetaterik gabe, dena argi eta garbi finkatzeko gogoia zeukan. Berak erraz egin zezakeena besteak ere egin zezakeela errugabeki uste zuen Tamurak, eta sarritan ezin izaten zuen ulertu zergatik besteak ezin zuen egin Tamurak erraz egin zezakeena. Besteei eskakizun maila altua jartzen zien edo haiengandik asko espero zuen.

Bestalde, hizkuntzalariaren gizarte-erantzukizunaren kontzientzia sakona izan zuen. Aitortzen zuen bere alhadura –hots, ainuera babesteko ezer egin

⁵ TAMURA, Suzuko (1983): «Syntatic Patterns of Position Nouns in Japanese, Ainu, Canadian Eskimo and Basque», *IKER-II*, Euskaltzaindia, 583-598. Ondorenean, beste artikulua bat, euskarari buruzkoa, euskaraz argitaratu zuen Tamurak. TAMURA, Suzuko (1985): «Hitzen ordena erabakitze faktoreak», *Euskera XXX*, Euskaltzaindia, 71-101.

⁶ SATRUSTEGI, Jose Mari (Hitzaldia), TAMURA, Suzuko A. (Itzulpena) (1988): *Japongo eta Euskal Herriko Ohitura Zaharrak / Nihon to basuku no furui shūzoku ni tsuite*, Goken Kyōzai Sensho 35, Waseda Daigaku Gogaku Kyōiku Kenkyūjo.

ez zuten hizkuntzalarien akatsa⁷. Noizbehinka kritika zorrotza egiten zien, hain zuzen ere, ainuera ikasi baina hitz egiten ez zekiten hizkuntzalariei edo euskara hitz egiten ez zekiten euskalariei. Hizkuntza bat bizi-bizirik izan dadin, ikerketa bera egiteaz gain zer gehiago egin lezaketen hizkuntzalariek pentsatzen zuen beti.

Ondo ezagutzen zituen Tamurak kanpotik etorri zen hizkuntzalariareki-ko ainuera hitzunen jarrera ezkor eta zalantzazkoak. Horregatik, euskaldunek egin zioten harrera ona benetan harrigarria iruditu zitzaion. Saio batzuetan adoratzeko euskara defendatzeko eta zabaltzeko euskaldunen etengabeko erronka. Aipatu diren lehenengo Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak izan zirenean, Tamurak ez zuen oraindik idatzi euskarari buruzko artikulurik, euskara ederki ikasia bazuen ere. Hala ere, Tamura gonbidatu zuen Euskaltzaindiak. «Zergatik?» galdetu zion Tamurak Haritschelharri. Erantzun zion nahi zuela Tamurak euskara eta euskaldunen izatea jendeari jakinarazi ziezaiola, eta Japonian ikasleei Tamuraren euskaldunetikiko amodioa kontatu ziezaiela⁸.

Bai, horrela egin zuen Tamurak. 1982ko apirilean erabaki zuen euskara ikastaro ez-ofiziala borontatez ematea «Goken»en, berak ikasitako euskara ez ahazteko, baita euskara irakasteko metodologia klasean aplikatzeko ere, *Jalgi hadi* eta *Hitz egin* liburu testuak erabiliz. Lehenengo ikasturtean lauzpabost ikaslerekin hasi eta, zenbait urte geroago, ikastaro ofiziala lortu zen.

Egia esan, laurogeigarren hamarkadan euskarari buruzko artikulua eta saioen ekoizpen ugaria izan zen, gehienbat japonieraz idatzita⁹. Dirudienez, hamarkada honetan ikerlanik gogobetegarrienak gauzatu zituen Tamurak.

⁷ Ik. SATRUSTEGI, J. M. (1981): «Euskara jalgi da mundura», Hoja del Lunes, 12 de enero, San Sebastián, p.4. TAMURA, Suzuko (1981): «Hoppō gengo bunka kenkyū kai seika hōkoku» (7), *Waseda Daigaku Gogaku Kyōiku Kenkyūjo Kiyō* 23. [«Report of the Study Group on Northern Languages and Cultures» 7, Bulletin of the Institute of Language Teaching, Waseda University, 23.]

⁸ TAMURA (1981): op. cit.

⁹ Hamarkada honetan Tamurak japonieraz idatzitako euskarari buruzko artikulua nagusiki *Waseda Daigaku Gogaku Kyōiku Kenkyūjo Kiyō* [Bulletin of the Institute of Language Teaching, Waseda University] barruan aurkitu daitezke.

Ezin dezakegu ahaztu Tokion kaleratu zen sei liburukiko *Entziklopedia Linguistiko Handia (Gengogaku Daijiten)*, non euskarari buruzko azalpen bikaina idatzi zuen¹⁰, ainuerari buruzkoarekin batera.¹¹ Horixe du garai hartako fruiturik onena.

Haatik, gure arteko inork ezingo zuen asmatu nolako estresa edo tentsioa jasaten zuen Tamurak. Alde batetik, Japonian XIX. mendeko azken hogeita bost urteetan lehenengo urratsa eman zuen ainueraren ikerketaren benetako ondorengotzat hartzen zuten Tamura, eta, bestetik, emakumezko ikertzaile aitzindaritzat ere hartzen zuten. Aldiz, euskaldunekiko harremanetan, Tamura jatorrizko «Tamura» bera izan zitekeen, tentsiorik gabe, estresik gabe, beharbada euskaldunen atzerriko euskal hiztunekiko jarrera atseginei esker. Euskal mundua osoki dastatzen zuenaren itxura pozgarria zuen Tamurak. Hauxe daukagu Tamurari buruzko oroitzapenik goxoenetako bat.

1996an euskaltzain urgazle eta 2000an euskaltzain ohorezko izendatu zuen Euskaltzaindiak. Euskararekiko interesa eta euskaldunekiko harremanak mantentzen zituen arren, laurogeita hamargarren hamarkadaren erditik aurrera, bere jatorrizko lekuetara emeki-emeki itzultzen hasi zen Tamura, Ainu *Saru* dialektoaren hiztegia osatu¹² eta berak grabatutako hainbeste datu fonetiko sistematizatu beharrean zegoelako. Eta lan hori amaitu zuen¹³, 2004an bere azken irakurketa¹⁴ Waseda Unibertsitatean egin baino lehenago.

¹⁰ TAMURA, Suzuko (1988-1996a): «Basukugo» [«The Basque language»] in *Gengogaku Daijiten [Encyclopaedia of Linguistics]*, KAMEI, Takashi et al. (eds.), 3. libk., 151-163, Tōkyō, Sanseidō.

¹¹ TAMURA (1988-1996b): «Ainugo» [«The Ainu language»] in *Ibid.*, 1. libk., 6-94. Ingelesezko bertsioa kaleratu zen 1996an: *The Ainu Language*, ICHEL Linguistic Studies, vol. 2, Tokyo, Sanseido.

¹² TAMURA, Suzuko (1996): *Ainugo Saru hōgen jiten [The Ainu-Japanese Dictionary of Saru Dialect]*, Tōkyō, Sōfūkan.

¹³ Batez ere, TAMURA, Suzuko (1984-2004): *Ainugo onsei shiryō [Ainu Audio Materials]*, 12 libk., Tōkyō, Waseda Daigaku Gogaku Kyōiku Kenkyūjo.

¹⁴ Irakurketa hau bideo batean grabatuta dago. TAMURA, Suzuko (2004): *Saishū Kōgi: Kiki gengo no kenkū ni tsuite [Last Lecture: About Research on Endangered Languages]*, 110 minutukoa, VHS sistema, Tōkyō, Waseda Daigaku [Waseda University].

Tamuraren erretretaren ondoren, «Goken» itxi zuten «unibertsitate globalizatua»ren izenean. Euskara eta ainuera kurtsoak Waseda unibertsitatean ematen jarraitzen dute, baina oraingo unibertsitatean garrantzi gutxiago dute. Euskarari dagokionez, hala eta guztiz ere, Japonian zehar, nahiz Tokion nahiz Osakan edo Nagoyan, lauzpabost unibertsitateetan euskara eta euskal kultura irakasten dira gaur. Aldi honetan, Tamuraren kurtsoan euskara ikasi zuten batzuek irakasten diete Japongo ikasle motibatuei.

Zalantzarik gabe, Tamura da euskal ikerketa edo ikasketen oinarri sendoa eta iraunkorra Japonian jarri zuena. Erein zituen euskararen haziak hozitzen ari dira gaur egun. Zer esanik ez, hori zor diogu Suzuko Tamura andreaki guk, munduko euskaltzaleok.